



AMAIA AURREKOETXEA
LAB SINDIKATUKO EUSKARA
IDAZKARIA

ARANTZA VAZQUEZ
LAB SINDIKATUKO
ZEHARLERROETAKO ARDURADUNA

MIGRANTEAK HERRIRA, EUSKARARA

DON INORREZ, horrela du izena Imanol Ubedak, 2018an, sortu zuen musika proiektuak. Horrela izendatu dezakegu azken urteotan migranteekin bizitzen ari garen egoera. Izatea, hain zuzen ere, izana eskuratzeko lehen pausua izan ohi delako. Hala, *Don Inorrez* izena horiei esleitzea beharrezkoa da bizitzaz hitz egiten badugu, izenez eta izanaz hitz egin behar dugu eta.

Migrantez hitz egitean, kapitalaren eta bizitzaren arteko kontraesanaren adierazpenik gordinena dugu begien aurrean.

Kapitalismo transnazionalaren eta inperialismoaren garapenak eraman gaitu ataka honetara, krisi sistemiko eta zibilizatailea errealitate bihurtu duela. Kapital metaketak bizitzen jasangarritasuna eraso egin behar du bere prozesuari eusteko. Herriak eta pertsonak azken mugaraino ustiatzea du helburu; izan ere, erauzketa kapitalismoaren fasean bizi gara, non merkatu berriak bilatzea ezinbesteko baldintza den etekin berriak profitatzeko.

Eta marko horretan non kokatu hizkuntza? Nola kokatu euskara?

OINARRIZKOEN ONDOREN EUSKARA

Don Inorrez izena horiei jartzetik hasi beharko litzatekeela esanda hasi dugu artikulua, hori baita, hain zuzen ere, gure herrira etorri den horri errekonozimendua egitea. Badela esateko lehen urratsa. Arinkeriaz jokatu gabe kontuan hartu beharko dira sorterria utzi eta hutsetik beste toki baten abiatzera eraman duten faktoreak, eta horiekin lan egiten hastea litzateke egokiena.

Oinarritzkoa badirudi ere, migrante diren pertsona horiei eskubideen aitortza bat ahalik eta azkarren egitea beharrezkoa izango da, egun dagoen burokrazia luze, astun eta ia amaiezina arinduz, ahalik eta azkarren herrialde berriko kide eskubide osoz izan daitezten. Osasun publikoa jasotzeko eskubidea izan dezaten, etxebizitza duin baterako eskubidea izan dezaten, bozkarako edo hezkuntza publikoa jasotzeko eskubidea izan dezaten. Azken finean, esan nahi dena da, edonork herritar gisa dituen eskubideak bermatzea ezinbestekoa izango dela beste herrialde batetik etorri dena gurean ere eroso sentitzen has dadin. Aurreiritzirik gabe jardun dezan eta dezagun.

Horrek ordea, ez du termino nahasketa ekarri behar. Migranteen integratzaile lan egitea, ez baita inoiz izango gurera ekarri eta gure egunerokoa asimilatzea. Beste herri, kultura, arraza... bateko jendearekin elkarbizitza da integratzaile lan gakoak. Askotan, joera izaten dugu babesa ematearen aitzakian herrialde hartzailean egiten direnak erakutsi eta datorrenarenak ahazteko, berak ezer ez balekar bezala.

Egungo lan merkatua oso prekarizatuta dagoenez eta sistemari eskulan ilegala izatea interesatzen zaionez, bertakotzeko traba handia da, etorkinak lana dagoen tokira joateko mugikortasuna izan behar duelako. Horrez gain, estatu bakoitzak bere politikak ditu eta gehienek oinarrian dagoen araua etorkinen aldeko politikak bertakoen erosotasuna zalantzan ez jartzea da. Ondorioz, asimilazioaren integrazio ereduak zabaldu da, hau da, etorkina integratzen da gu moduan bizi denean, arestian aipatu bezala, asimilatzen dugunean.

Badaude iritziak integrazioa hitza ez erabiltzearen aldekoak, horrek datorren pertsonari dena aldatu beharra dakarkiolako, besterik gabe heldu den herrian eskaintzen zaionari egokituz. Ideia hori defendatzen dutenen hitzetan, elkarbizitza da hitz egokia, elkarrekin bizitzea baita lortu nahi dena. Bakoitzak berak dakarrenarekin eta elkar aberastuz.

Behin bertakotzea modu egoki eta progresiboan jazo denean, hizkuntzaren aldagaiak hartzen du lekua. Arestian aipatu bezala, etorri den pertsonak bere oinarritzko beharrezkoak eta eskubideak beteta dituztenean bertako hizkuntzara erakartzeko eta hemengo errealitate soziolinguistikoaren berri ematea errazagoa izango baita.


UEMA herri euskaldunen mankomunitateak badauka beste herri-herrialde batetik datozenentzako harrera protokoloa. Herriaren eta bertara datorrenaren ezaugarrien arabera egokitua dagoena. Kasu hauetan, gainera, ez da beste herrialde batetik datorren erdaldunarentzako protokoloa soilik. Euskal Herrian bertan herriz aldatu den erdaldunarentzako ere egokitu dute. Zenbait neurri konkretu eta egingarri zehazten dira protokoloan.

Eusko Jaurlaritzaren immigrazioari buruzko planak ere aipatzen ditu harrera egiteari buruzko zertzelada batzuk.

Baina, zer gertatzen da UEMAn ez dauden herrietan? Alegia, Euskal Herriko herri eta hiri gehienetan? Eta behin harrera egin ondoren?

EZBERDINTASUNAK IRITSI ZAREN TOKIAREN ARABERAKOAK DIRA

Argi dago egun euskal komunitatea osatzen dugunok jatorri anitzeko pertsonak garela. Eta hizkuntza ere badela herri erakundetzearen parte. Baina nola sentiarazi hori Euskal Herrira etorri den bati? Euskal Herrian, gainera, egoera oso konplikatu eta ezberdina da, segun eta nora iristen zaren. Batetik, euskararen egoera administratiboak guztiz baldintza dezake euskara jasotzeko migranteak izan dezakeen aukera. Eta bestetik, aukera izanda ere, ez baita gauza bera herri batera edo bestera heldu, UEMAn kasua lehen aipatu dugua.



hermes



hermes



Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan euskarak ofizialtasuna legez onartuta duen arren, eskaintza ez da euskara lehentasunez eskaintzen duenetakoa. Petra Elser alemaniar migranteak 2019an hamaika telebistari eskainitako elkarrizketa baten, hauxe zioen: *“Egun harrera bidea EPA da, eta EPAk ematen duen mezua da garrantzitsuena gaztelera dela. Hala ere, EPA laguntza handia da, joan zaitezke bertara, dohainik da, eskaintzen dizute zerbait ikasteko, eta hor egiten den bidea gaztelera da, eta hor sortu behar dira bideak euskal mundura”*

EAEen euskara ofiziala izanik, eta gaztelera koofiziala, planteamenduak beste bat behar luke, alegia, EPARA sarrera euskaraz izatea eta eskaintza ere bai. Bestela, badirudi gaztelera dela hizkuntza ofiziala eta euskara koofiziala. Bigarren hutsunea euskara ikasteko doakotasunik eza da, hainbat alditan zenbait eragilek aipatu duten bezala. Beste herrialde batera etorri eta bertako hizkuntza ikasteko ordaindu behar izateak ez du zentzu handirik, baldin eta helburua datorrena bertakotzea baldin bada. Zergatik egiten da eskaintza doakoa gaztelera eta ordainpekoa euskaraz?

Nafarroan euskararen ofizialtasuna, oraindik ere Euskararen Legeak baldintzatuta dago eta beraz ez dauka zer ikusirik iparraldeko zonalde euskaldunean egin daitekeenak edo hegoaldean egiten den eskaintzak.

Iparraldearen kasuan, zer esanik ez. Oraindik oraindik euskararen ofizialtasuna onartu gabe dago. Frantsesa da estatuko hizkuntza ofizial bakarra, beraz migranteei euskara eskaintzearena, printzipioz kontenplatu ere, ez delako egiten dirudi.

MIGRANTEEN HARRERAREN ARDURAK KONPARTITUA IZAN BEHAR DU HERRITARROK ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEAN

Batzuetan, badirudi bertakotzearen ardura migrantearena berarena baka-rrik dela, administrazioak eta oro har herritarrek hizkuntza eta baliabideak eskainiz gero nahiko egin dugula, bada, ez da horrela izan behar inondik ere.

Gutxika bada ere, gu eta haien dikotomia gaindituz joan beharko gara. Bide horretan, ezinbestekoa da etxeko ateak zabaldu eta etorkinei gure sareetan sartzeko aukera ematea, ezin ditugu etsai bezala ikusi, bestela, ez delako egongo elkarlanik eta finean, guk transmititu behar dizkiegu kultura, hizkuntza eta orokorrean euskararen mundu sinbolikoak dakarren guztia.

Horrez gain, administrazioak berak ere asko du egiteko. Helduen euskalduntzean lehenago aipatu dugu akats nabaria dagoela. EPAn egiten den migrantearentzako eskaintza gaztelera hutsezkoa da. Errazago “integratzeko” aitzakian. Zenbat alditan entzun izan dugu bada, “gaztelera denetara hel zaitezke eta euskaraz ez dago aukerarik” bezalako esaldiak.

EPAz gain, lanbide heziketa ere badago. Egun, eskaintzen den lan formazioaren % 85 inguru gaztelera da. Nola azaldu Euskal Herrira datorrenari euskara dela beharrezkoa?

Eta ikasteko ordaindu egin behar dela? Bada ordua administrazioak hizkuntza politika eraginkorra martxan jar dezan eta Euskararen Legea bezalako moldaketa eta berritzei bide eman diezaien, benetan dagoenarekiko salto bat egitea lortu nahi badugu. Ez soilik migranteentzako baizik eta jendarte osoarentzako. Beharrezkoa da euskara ikasteko doakotasun osoa.

Derrigorrezko hezkuntzan ere, hainbat plan egiten dira, besteak beste, ikasle etorkinentzako hezkuntza arretarako programa edo HIPI (hizkuntza indartzeko proiektuko irakasleak) proiektuak. Biak ala biak migranteen bertakotzea errazteko sortukoak, euskarara erakartzeko asmoz egindakoak. Malores

Etxebarriak argian idatzitako artikulu baten honakoa zioen: “*Heziketa inklusiboaz ari gara matrikulazio kanpainetan kolore pixka bat sartu eta etorri berriei gure eskoletan behar dituzten baliabideak eskaintzen ez dizkiegunear*”.

Egungo egoeran, gainera, proiektu horiek denak kolokan daude COVID 19aren krisiak eraginda hezkuntza arloko eragileek salatu baitute murrizketak jasaten ari direla eta aurrera begira ere, murrizketa gehiago aurreikusten dituztela.

Berriz ere, ahulenak baztertera gelditzeko aukera aurrez aurre dago. Balia-bide gutxien dituenari kentzeko aukera eta garrantzia beste arlo batzuetara bideratzeko aukera. Migranteak ez dira lehentasun eta euskara ere ez.

LAN MUNDUAN ZER?

Bada, lan munduan eta migranteek hitz eginez gero, are zailagoa da euskara kokatzea. Oro har, lan munduan euskara ez da existitzen eta migranteentzat are gutxiago.

Hala ere, datuetara jotzea izaten da errealitatera hurbiltzeko modurik egokiena askotan, eta beraz, jo dezagun Ikuspegi, immigrazioaren euskal behatokiak 2020ko otsailan argitaratu duen “Atzerritar biztanleria eta euskal lan merkatua” txosteneko zenbait ondorio aipatzera.

Txosten horren arabera, une honetan EAEn lanean ari den atzerritarren % 69,7 zerbitzuen sektorean ari da lanean eta % 13,9 bakarrik industria sektorean. Ez dago esan beharrik egun, sektorerik prekarioena dela zerbitzuen sektorea, aldi baterako kontratazio, soldata miserable eta lan jardun amaiezinekin. Gero eta txarragoa doa, gainera.

Horrez gain, aipagarria da txostenean ateratzen den ondoko ondorioa “EAEn bizi eta lan egiteko adinean dauden atzerritar gehienak lanean edo lan bila ari dira. Hala ere, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen langabezia tasa % 28,1ekoa da, Espainiako nazionalitatea duten biztanleen langabezia tasa (%7,6) baino nabarmen handiagoa”.


Bi ondorio horiek aintzat hartuta erraz ikus daiteke artikuluaren hasieran aipatutako migranteen oinarrizko beharizanak ez direla betetzen eta horrek asko zailtzen duela pertsona horiek euskarara egin beharreko saltoa. Ala astebeteko kontratuak bata bestearen atzetik harilkatzen, ordutegi jakinik gabe eta bertakoa denaren paper ofizialik gabe dabilenak euskara ikasteko gogoia izango duela uste al dugu?

Hori kontratuei dagokienean. Bada, ez baitago esan beharrik migrante asko eta askoren, -batez ere emakumeena- eguneroko ogia ezkutuko ekonomiatik datorrenik. Datuetan sartzen ez direnak dira horiek. Ezkutuko ekonomian eta ezkutuan lan egiten dutenak.

Beraz, nola sartu osatu ezinezko puzzle honetan hizkuntzaren aldagaia?

Lan mundua euskalduntzeko plana aurkeztu berri du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak. Plan estrategikoa deritzona. Plana aurre-rapauso bat denik ukatu ezinezkoa den arren, akats nabariak dituela argi gelditu da. Lehenengoa, adibidez, langileen ikuspuntuaz ez duela ezer aipatzen. Izan ere, horrelako tamainako plan batek lan mundua osatzen duten eragile guztien parte hartzea bermatua beharko luke, baina kasu honetan arreta gehiago jartzen da zuzendaritzetan euskalduntzeak eragin zuzena izango duen horietan baino.

Lan munduaren euskalduntzeaz ari direnean zein lan munduz ari diren ere aztertu beharrekoa da. Alegia, lehen aipatu ditugun ezkutuko ekonomian dihardutenen egunerokoak ba al du lekurik horretan? Edo eta udarako kontratuarekin ostalaritzan lanean dihardutenak ba al daude plan estrategikoan kontuan hartuta?



hermes



hermes



Argi dago kasu honetan ere, bazter gelditu direnak berberak direla. Hizkuntzaren aldagaia egon badago joko zelaian, baina, ordura arte jokatzeko aukerarik gabe zeudenak berriro aulkian gelditzen dira.

NOLA EMAN BUELTA?

Orain arte azaldukatotik ondoriozta dezakegu migrazio-mugimenduak planeta-desberdintasunarekin lotuta daudela, eta horrek asimetriak eragiten dituela, bai aberastasunak eskuratzeko aukeretan, baita bizitzako edozein arlotan ere; beraz, egin beharreko proposamenen abiapuntua da migrazioa egiturazko gai politikotzat hartzea.

Hainbatetan aipatu bezala, pertsona horiek subjektu politiko gisa hartu behar dira, eta haiekin hitz egin behar da gure agendan sartu behar diren baldintzak eta beharrak ezagutzeko, bai eta parte hartzeko espazioak eskaintzeko ere. Neurri batzuk proposatzen dira ondoren. Orokorretik hasita zehatzagoetara.

- Migratzaileak Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparruaren eraikuntzan sartzeko politikak bultzatzea.
- Euskal administrazioei eskatzea eskumen osoak eska eta beregana ditzatela harrera-baldintza propioak artikulatzeko, gure ehun sozioproduktiboaren arabera eta nazioarteko elkartasunaren eta lankidetzaren ikuspegitik. Eskumenak bereganatzeak, gainera, Euskal Herritik berezitate errealtate nazionala garatzea ahalbidetu beharko luke.
- Euskal administrazioei eskatzea politika publikoak eta neurri eraginkorrak har ditzatela enpleguan, pertsona migratzaileen diskriminazioari eta urraketari aurre egiteko, arreta berezia jarrita emakume migratuen kasuan.
- EAEko administrazioei atzeritartasun legearen aurkako jarrera har dezaten eskatzea.
- Hemen dauden migratzaile guztiei paperak eskatzea, eta udal-esparrutik hasita botoa emateko eskubidea aldarrikatzea. Eskubideetan berdintasunik ez badago, zaila da integrazioaz hitz egitea.

EUSKARAREKIN ZER?

Hizkuntza politika berri, eraginkor eta betearazle baten beharra gero eta nabariagoa da. Azken urteetan, zikloa amaituta dagoela entzuten da batean eta bestean baina ez da ikusi erabaki ausartik horri adarretatik heltzeko. Euskara esparruak irabazten joatea nahi bada, beharrezkoa da ekiten hasteko plan berria.

- Euskara ikasteko doakotasuna eskatzea oinarrizko neurria izango da pertsona migranteei euskarara hurbiltzeko bidea eskaintzerako orduan.
- Formazio profesionala jasotzeko bidea euskaraz eskaintzea eta egun, dagoen % 15eko kopuruak gorantz joatea
- Lan munduaren euskalduntzeko plan integrala egokitzea, benetan langileek hizkuntzarekiko dituzten beharrianak aintzat hartuz.

Beraz, eta bidean esandakoak kontuan hartuz, DON INORREZ guztiak norbait izaterako bide horretan asko dago, dugu, egiteko. Administrazio orokorretatik hasi eta lokaletara, lantegitik hasi eta kalera, etxeetatik tabernara, norbanakotik kolektibora.

Migranteek euskara nahi dute, euskal herritarrok migranteak nahi ditugu eta euskarak guztiok nahi gaitu. Beraz, ekin diezaiozun bideari. Luze bezain emankorra izateko aukera asko ditu eta.